

GIOVANNI SARTORI

2. ¿QUÉ ES LA DEMOCRACIA?

Egitura:

Lehenengo kapitulua

DEFINIR LA DEMOCRACIA

1. Descripción y posición

Izenak idealari egiten dio erreferentzia, izan ere, izena eta errealitatea guztiz aldentuta daude. Beraz, demokraziaren definizioa izatearen eta izan beharraren artean kokatzen da. Erdian, bidean, topatuko dugu demokrazia (errealitatea eta idealaren artekoa zuzia). Beraz, autorearen tesia: demokrazia definitzerakoan bi errealitateak hartu behar ditugu kontuan, esparru erreala eta ideala hain zuzen ere. Era berean, demokraziak deskripzioa eta preskripzioa behar du.

Beharrezkoak al dira utopiak? Helburu bat erdiesteko egina dagoela esan daiteke, hala ere, finkatutako helburua lortzea ezinezkoa. Beraz, bide egokia aukeratzeko baliagarria izan daiteke. Adibidez; demokrazia (demo-kratos): hiritar aske eta berdinen gobernu. Norbaitek demokraziarik ez dagoela esaten duenean, demokrazia utopikoaren arabera diola esan daiteke, hau da, erreparatzen dion eredu bakarra demokrazia ideala izango litzateke. Beraz, demokraziari buruz hitz egiteko bi ikuspuntuak beharrezkoak ditugu.

Sartorik demokraziaren esparru errearen garrantzia (baita idealarena ere azpimarratzen du.

- Mendebaldeko demokraziak: liberalismoaren idealak + Demokrazia Liberalaren errealitatea
- Ekialdeko demokraziak: komunismoaren idealak + Demokrazia Liberalaren errealitatea (Beraz, errealitaterik gabeko liberalak dituztela esango genezake)

2. Democracia social, política, económica

Demokrazia erreal eta idealaren arteko bereizketa egitea funtsezkoa da. Demokraziaren definizioa den eta izan behar denaren arteko mugetan kokatzen dugu.

- **Poliarkia:** Autoreak Demokraziaren irizpide ideal batzuen arabera gaur egungo demokraziak neurtzen dira. Def: askoren gobernu: gehiengoaren araua, herritar gehiengoaren borondatea. Funtsezko bi ezaugarri ditu:
 - Herri subiranotasuna: Erabaki politikoak islatzen dute hiritar guztien borondatea.
 - Berdintasun politiko: Hiritar guztiek hartzen dute parte bizitza politikoan modu eraginkorrean eta baldintza berdinetan.

- **8 Baldintza edo printzipio**

- Biltzeko askatasuna, elkartzeko askatasuna
- Adierazpen askatasuna
- Boto askatasuna
- Sufragio pasiborako eskubidea: alderdi politiko bat eratzeko eskubidea, hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea hain zuzen ere
- Liderrek politikoki lehiatzeko eskubidea:
- Informazio iturrien askatasuna
- Hauteskunde libre eta inpartzialak
- Gobernuaren politikak herriaren borondatea adierazten duela ziurtatzen dute erakundeak

- **Kalitatzeko demokraziaren ezinbesteko elementuak**

- Zuzenbide estatua
- Botere banaketa
- Sufragio unibertsala
- Sistema pluripartidista
- Adierazpen askatasuna, prentsa askatasuna eta gainontzeko eskubide zibilak
- Kultura demokratikoa (Espainiako kultura demokratikoa nahiko ahula da, izan ere, demokrazia nahiko gaztea da, eta agian, azken honen kalitatea ez da hain ona)

- **Egungo demokraziaren kalitatea**

Irizpideen arabera kalitate mailak alda daitezke (gender, economy, knowledge. health. enviroment...)

3. Democracia en singular y plural

Demokraziaren teoria bat edo ugari daude?

- Teoria klasikoa-lehiakorra
- Parte hartzailea- ordezkatzailea...
- Tesia: benetako demokrazia bereizketa honetan ematen da:
 - Aintzinakoen (zuzena, hiritarrek asanbelan modu zuzenean hartzen zituzten erabakiak) eta modernoek (liberala eta ordezkatzailea dena) artean ematen da, demokrazia egon den une historiko bakarrak baitira (Atenaseko demokrazia eta gaur egungoa hain zuzen ere).

4. Las trampas

Bigarren kapitulua PUEBLO Y PODER

1. Democracia literal

Demokrazia herriaren boterea da, baina zein da herria? zeinek hartzen du multzo horretan parte? nola egiten da demokrazia?

2. Mayoría y respeto de las minorías

Aurre egin beharreko oztopoa. Hala ere, Demokrazia idealaren esparruan ezin dugu oztopoa gainditu. Demokraziaren bi tentsio nagusiak: gehiengoak vs gutxiengoak: Gehiengoraren borondatea errespetatzea soilik al da demokrazia? Edo banako edo gutxiengoak ere, eta bereziki babestea zein errespetatzea?? Gakoa oreka bilatzean dagoela esan daiteke. Beraz, gehiengoak onartzen duen oro “demokratikoa” al da?

Ideala: askatasuna+berdintasuna (Gutxiengoaren kasuan ez lirateke baldintza hauek beteko).

<ol style="list-style-type: none">1. Taldearen subiranotasuna2. Gehiengoaren borondatea3. Publikoa, guztiona, gure4. Berdintasuna5. Botere edo legearen aurrean: jarrera positiboa, zibikoa6. Parte hartzeko premia7. Tradizio errepublikano	(1. testuan)
--	--------------

- **Gehiengoaren tirania:**

- Banakoaren askatasunari buruzko kezka (liberala): banakoa bere bizitzaren alderdi askoko subiraua da. Ez gobernuak ez gehiengoak esfera pribatu horretan ez dute inolako botererik, ez lukete esku hartzeko eskubiderik izan behar. Botere gehiegikeriaren aurrean mugak ezarri behar dira, esfera pribatua babes dadin.

- **Demokraziari galarazitako barrutia (koto pribatua)**

- Berezko gehiengoaren printzipioa edo erregela. Gehiengoaren erabakia izateak ez du demokratikoa denik esan nahi, bata ez dator bestearekin.
- Giza eskubideak (batez ere demokrazia liberaletan)

3. La sociedad de masas

Liberalismoa “mugimendua” da: geografikoa, maritala, soziala, politikoa...Euskal Herrian ematen den fenomenoak: alderdi politiko baten alde egitea tradizioa dela eta, familiak beti horrela egin duelako.

4. Poder del pueblo sobre el pueblo

Herria eta boterea kontzeptuak jokoan sartzerakoan arazoa hasten da. Demokrazia batean, herria baita boterearen jatorria edo funtsa. Era berean, benetako arazoa, botere hau praktikara eramterakoan handiagotzen da, boterearen erabilera egiten denean, hain zuzen ere.

- **Erabakiak gauzatzeko tresnak:** bozketa orok arau bat behar du hartutako erabakia aplikatzeko, “operatiboa” egiteko
 - Kontsentsoa
 - Unanimitatea (aho bateza)
 - Gehiengo absolutua: erdia baino gehiago, erdia+1
 - Gehiengo sinplea edo erlatiboa: boto gehien duena
 - Gehiengo handitua edo kualifikatua: bi heren, hiru bostenak (%67)
 - Konstituzioa aldatzeko, erreformatzeko bi heren behar dira. Praktikan, Espainian ez da sakoneko aldaketarik egongo PPak horrelakorik egin nahi ez duelako.
 - printzipio demokratikoa- legalitatearen printzipioa

Printzipio demokratikoa	Legalitatearen printzipioa (dentro de la ley todo fuera de la ley nada)
<ul style="list-style-type: none">- Gehiengoaren borondatea- Nork gobernatzen du?- Nork gobernatzen nau /gaitu?	<ul style="list-style-type: none">- Indarrean dagoen legedia- Nola gobernatzen da?- Zeintzuk dira botere politikoaren mugak?

Adib: erreferendum legala(anbiguetatea)

- **Gehiengo absolutua hobea da “demokratikoagoa” da**
 - Eraginkorragoa da: unanimitateek edo gehiengo kualifikatuek erabakiak hartzeko prozesua zaildu edo oztopatzen dute
 - Bidezkoagoa da: unanimitateek edo gehiengo kualifikatuek gutxiengoari betorako aukera, oztoporako aukera hain zuzen ere.
- **Gehiengoaren anbiguotasuna**
 - Korpus elektorala: nork izan behar du bozkatzeko eskubidea? (etorkinak, 18 urte baino gazteagoak)
 - Nola interpretatu anbiguotasuna? Sistemaren kontrako boto isila? Pasotismoa?
 - Jende ospetsua hauteskundeetan aurkeztea zilegia al da?
- *El poder es del pueblo en cuanto es el pueblo el que propiamente lo ejerce, baina, para realizar la democracia se desunen la titularidad y el ejercicio del poder.*

5. La democracia como legitimidad

Demokraziaren nukleo gogoraa:

- Askatasuna: Erabaki politikoen prozeduretan indibiduoek (guztiek) zer esana badute
- Berdintasuna: pertsona horiek guztiek askatasun berdinez disfrutatzen dute.
 - “Government of the people, by..., for the people”
 - Objektua vs subjektua
 - mendekoa vs hiritarra
 - jokaera paternalista vs autonomismoa
 - “Right to do wrong”

Sartoriren tesia

- Poliarkia selektiboa: sistema politiko bat non hiritarrek, hauteskunde libre batzuen bitartez (eleccion), elite edo aristokrazia hautatzen duten (selección).
- Zentzu batean, Platonen kezkarri erantzuna ematen dion proposamena, demokrazia batekin jarraituz, ez luke herri irrazional eta ez gaituen eskuetan boterea geldituko (Platon)
- Jakina, “hoberenak” hautatzeko hiritarrok erantzukizunez bozkatu behar dugu. Buruarekin, hain zuzen ere, guztion ona kontuan hartuz